

## 69 - MUSAKOLA

## 1. HELBURUAK:

- 1 Egungo eraikinak finkatzea, eskuharmen berririk bertan aurreikusten ez delarik.
- 2 Hala ere, bai hiri-ingurumena eta bai bizi-kalitatea hobetzearren, zenbait eskuharmenei aurre egin beharko litzaieke, bereziki hiritartze mailakoak.
- 3 Kiroldegiaren beharrei aurre egin ahal izateko, azaleko aparkaleku eremua mantentzea.
- 4 San Antolin eskolari, hala behar izanez gero, handitzeko aukera ematea.

## 2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Hirilurra
ESPARRUAREN AZALERA:	84.982 m <sup>2</sup>
ERABILERA OROKORRA:	Etxebizitza
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	Esparruaren barruan gelditzen diren: -Deba ibaiaren zatia -Bide-sare nagusian sartuta dagoen Gipuzkoa etorbidearen zatia -Bide-sare nagusian sartuta dagoen Musakola-Santa Teresa-Santamaina-Legarre kale zirkuitoaren zatia. - Gernika oinezkoen zumardiaren zatia - Etxaluze-Musakola bidegorriaren zatia - San Antolin eskola
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	Gaur egun eraikita dagoena + 3.660 m <sup>2</sup> (e). Gehikuntza horretatik 500 m <sup>2</sup> (e) San Antolin eskolari dagozkio.
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	Gaur egun eraikita dagoena+ 3.160 m <sup>2</sup> (e)
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	Gaur egun eraikita dagoena + zuzkidurako jarduketetatik eratorritakoak (handitze fisikotik sortutakoak) + erabilera aldatetetatik eratorritakoak (22,2,2 artikulua)
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Ez dago
EGITARAU:	Zehaztu gabe

## 3. ANTOLAMENDU XEHATUA:

HIRILUR MOTA:	Finkatugabea
ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Guztiz finkatu gabea (A2)
JARDUKETAREN EREMUA:	Zenbait zuzkidura jarduketa
JARDUKETA ERA:	Zuzkidura-jarduketen bitartez (K2)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	- Kiroldegi aurreko aparkalekua erabilera horrekin mantendu beharko da
ERABILERA ARAUBIDEA:	Trinkotasun handiko etxebizitza (71 artikulua)
- E. ohikoena:	Trinkotasun txikiko etxebizitza (74 artikulua)
- E. nagusi baimenduak:	Gizarte eta administrazio hornikuntza (90 artikulua)
	Irakaskuntza hornikuntza (90 artikulua)
	Erlijio hornikuntza (90 artikulua)
	Aparkaleku-eraikin hornikuntza (90 artikulua)
ZUZKIDURA JARDUKETEN ERAIKIGARRITASUNA:	
A – Trink. handiko etxeb. (Gip. et., 40, 42)	1.380 m <sup>2</sup> (e)
B – Trink. handiko etxeb. (Gip. et., 44, 46, 48)	1.780 m <sup>2</sup> (e)
ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA:	71, 74 eta 90 artikulua
A eta B jarduketei dagokienez, gainera:	
- Profila:	BS+4S
- Goiera:	Gipuzkoa etorbidea, 38-k markatutakoa
- Lurzoruaren okupazio berria:	A jardueran gaur eguneko + 204 m <sup>2</sup> (a) B jardueran gaur eguneko
ESKUHARTZE GUNEA:	EZ
BESTE BATZUK:	
1. Hiri-eraberritze lanetan jabari publiko eta jabego pribatuaren arteko mugak egokitzea behar izanez gero, dagokion lur kudeaketarekin hasteko nahikoa izango da Hiritartze Proiektu orokor bat onartuta egotea.	

## 4. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 "Ibaiek eta errekek antolatutako lurraldearen arloko plana"-ren arabera, Deba ibaiarekiko lehen 12 metrotan edozein eraikin berri egiteko Ur Agentziaren baimena lortu beharko da.